zirimola
IKASTOLEN AISIALDI TALDEA

BiziJolas fitxa teknikoa.
Ikasturtean zehar.

Euskaraz gozatzeko eta ondo pasatzeko proposamena da, euskal mitologia eta euskal joko eta jolas tradizionalen esperimentazioan oinarritua. Egoera ludiko anitzak proposatuz, euskararen erabilera sustatzea eta talde harremana zein kohesioa lantzea bilatzen da. Programazioa zein ekintzak, haur partehartzaileen adinari egokituak dira.

Helburuak

- Balio hezitzaileen eta bizipen positiboen bidez euskararen erabilera sustatzea.
- Jolas eta dinamika ludikoen bidez euskal mitologian murgiltzea.
- Euskal abesti, jolas eta jokoen bidez euskal kulturaren transmisioa sustatzea.
- Ikaskideen arteko bizikidetza eta talde harremana eta kohesioa indartzea.

Jarduera motak

- Ahozko euskara indartzeko jolas-estrategia desberdinak: euskal jolas eta jokoei loturiko hiztegia, euskal kantagintza, aho-korapiloak…
- Euskal jolas eta joko tradizionalak ezagutzeko, gozatzeko eta berrasmatzeko jolasak, talde izaera kooperatiboa sustatuz.
- Euskal mitologian murgiltzeko dinamika eta jolasak.
- Material ezberdinarekin esperimentatu eta disfrutatzeko jolasak.

Egutegia

Urritik maiatzera, astean zehar. Bazkal orduan edota bazkal osteko tarteetan.

Hartzaileak

HH eta LHko haurrentzat.

Formatzaile taldea

Zirimolako hezitzaileak.

Prezioa

Aurrekontua Zirimolari eskatu.